

## MATRIKULA 2012-13

### INFORMAZIO GARRANTZITSUA

- Matrikula ikastetxe batean soilik entregatu behar da, hala ere, hiru aukera har daitezke, nahi den ordenean eta inprimaki berean jartzen dira. Ikastetxe ezberdinak edo ikastetxe bereko eredu ezberdinak aukera daitezke, nahi den ordenean. Bakarrik eskakizun bat betetzen da eta lehen postuan aukeratzen dan ikastetxean egin behar da.
- Ez dago itxaron zerrendarik. Epe barruan egindako eskakizun guztiak onartzen dira. Dauden plaza baino eskakizun gehiago egonez gero, orduan bakarrik baremazioa egingo da, eskakizun guztiak ikastetxe ezberdinetan banatzeko, baina eskakizun guztiak onartzen dira, ez dago erreserbarik.
- Komeni da aurretik pentsatzea hizkuntz eredia eta jantokia beharko bada. Hala ere, honi guztiari buruz ikastetxean bertan informazio zehatza emango dizuegu.

#### MATRIKULA BETETZEKO EZINBESTEKO DOKUMENTAZIOA

- Famili liburua.
- Gurasoen edo legezko tutoreen NANak.
- Famil unitatearen erroldatze ziurtagiria (udaletxean).

Ekar ditzakezue dokumentuak eta ikastetxean bertan fotokopiatuko ditugu.

Matrikula epea urtarrilaren 30etik otsailaren 10era da eta gogoratu, berdin da lehen edo azken eguna. Hala ere, oso interesgarria da otsailaren 8ko hitzaldi informatiboa, 14:30etan areto nagusian, jantoki alboan.

